

WOP CHALLENGE

BILBAO-BIZKAIA

URRIAK
4-5



0 ETAPA

2025 TXOSTENA

AURKIBIDEA

| | |
|--|---|
| Zein da WOP Challenge-ren helburu soziala? _____ | 3 |
| Zer da WOP? _____ | 3 |
| Zertan datza 0 Etapa? _____ | 4 |
| Zer da WOP Estropatada? _____ | 8 |
| Zer da WOPatoui bat? _____ | 9 |



¿ZEIN DA WOP CHALLENGE-REN HELBURU SOZIALA?

WOP Challenge Bilbao-Bizkaia taldekako kirol-proba da, Bizkaian egiten dena, eta hiru partaidetza-modalitate dituena:



🏠 Gau eta egun
🏃 224km/19 etapa
👥 2-12 errelebista



🏠 Eguna
🏃 50km/5 etapa
👥 2-5 errelebista



🏠 Eguna
🏃 50km/etapak neurritan
👥 2-8 errelebista

Probak gizarte-konpromisoaren izaera argia du; izan ere, gaixotasun neurodegeneratiboen aurkako borrokan dihardu, The Walk On Project Fundazioa (WOP).

ZER DA WOP?

WOP gizarte-entresa bat da, eta helburu nagusi hauek ditu:

Gaixotasun neurodegeneratiboetarako terapien bila ikerketa-proiektuak finantzatzea

Gaixotasun neurodegeneratiboen errealitatea zabaltzea

Gizartearen kontzientzia sustatzea, ikerketaren eta zientziaren alde

Zifra batzuk begi-kolpe batez:

>1.300.000€
Helburuetara bideratutako PPEak

>150
Hitzaldi hainbat forotan

10.000.000€ urtean
Dibulgazioaren inpaktua, bitartekoen balorazioa

440.000€
RRPP. bidez finantzatutako proiektuak

Lehenengo
nazioarteko WOP Konekta neurozientzia kongresua

Nazioarteko 7 proiektu
nazioarteko lehiaketa publiko eta Zientzia Ministerioaren balorazioaren bidez

FINANTZATU DITUGUN PROIEKTUEI BURUZKO INFORMAZIO GEHIAGO >

ZERTAN DATZA 0 ETAPA?

Kirol-abentura honek helburu sozial bat du: gaixotasun neurodegeneratiboen aurka borroka minutuak sortzea.

Horregatik, izena eman duten taldeek dortsalak jaso ditzaten eta, beraz, proban parte har dezaten, 0 etapa bete beharko dute, hau da, gaixotasun neurodegeneratiboen aurka borroka minutuak sortzea.

¿Nola sor ditzake nire taldeak borroka minutuak?

Taldeek 2 modu dituzte 0 etapa osatzeko eta gaixotasun neurodegeneratiboen aurkako borroka minutuak sortzeko: **Estropatada tiketak salduz** (Bilboko Bioahate Lasterketa, WOPEk antolatua. Data eta lekua bat datoz taldeen helmugarekin) eta/edo **diruzko ekarpen bat eginez**.

Modalitate bakoitzak jomuga bat du:

FULL

800 borroka minutu gutxienez sortzea

100 txartel saltzearen edo 400 euroko ekarpena egitearen baliokidea

1DAY

440 borroka minutu gutxienez sortzea

60 txartel saltzearen edo 220 euroko ekarpena egitearen baliokidea

WALK

440 borroka minutu gutxienez sortzea



5€ -KO DIRU EKARPENA = 10 BORROKA MINUTU



ESTROPATADA TIKET 1 = 5€ = 8 BORROKA MINUTU



NOLA SAL DITZAKET ESTROPADAKO TIKETAK?


Tiketak saltzeko 2 modu daude:

1. Tiket fisikoak. Antolatzaileek tiket fisikoak* bidaliko dizkiete izena eman duten taldeei. Txartelak saldu ondoren ordaintzen dira, hau da, taldeak ez du horien dirua aurreratu beharko.**


* *Izena emateko plataformaren bidez taldeak emandako posta-helbidera bidaliko dira.*

** *Saldu gabeko tiket fisikoak dortsalak jasotzen diren egunean itzuli ahal izango dira.*

2. Online tiketak. Taldeek online tiketen salmenta susta dezakete. Online tiketak erosi behar dituzten pertsonak nahi duten taldeari esleitu beharko diote, erosketa-prozesuaren azken urratsean.



TIKETAK EROSI >



WOP Challenge

Si quieres asignar esta compra a un equipo, selecciónalo en este desplegable:

Ninguno 

Erosketa saski orria eta erosketa amaitu atalean zure taldea esleitzeko opzioa

NOLA EGIN DEZAKET DIRU-EKARPENAK?

Diru ekarpenak egiteko 3 modu daude:

1. Taldearen inskripzioa egitean. Izena emateko plataforman diru-ekarpen bat egiteko aukera duzue.

2. WOPen online dendaren bidez.

'Diruzko ekarpena' produktua erosita, ordaindu nahi duzun zenbatekoa gehitu beharko duzu eta zure taldeari esleitu erosketa-prozesuaren azken urratsean.

3. Email bidez ere egin dezakezue, *reto@wopmail.org* helbidera idatziz edo 638 560 659 zenbakira whatsapp bat bidaliz.



[DIRU-EKARPENA >](#)

Nola kontsulta dezaket nire taldeak sortu duen borroka-minutu kopurua?

'Taldeak 2025' orriaren bidez, zure taldeak sortutako borroka-minutuen kopurua kontsulta dezakezu.

Tiketak edo ekarpenak egiteko epea 24 ordukoa izan daiteke, eskaera egin denetik, webgunean jasota egon arte.

[TALDEAK ORRIA >](#)

0 ETAPA ORDAINTZEKO MODUAK

- Bizum bat bidaliz:

638 560 659 telefonora

- Transferentzia* bidez:

Fundación The Walk On Project | ES63 2095 0114 60 9112945561

* GARRANTZITSUA. Transferentzia bat egitea aukeratzeko baduzu, beharrezkoa da ordainketa-egiaztagiria reto@wopmail.org helbidera bidaltzea

Edozein aukeratan, taldearen izena jarri behar da gai gisa.

Zenbat denbora du nire taldeak 0 Etapa betetzeko?

Segun eta zure taldeak izena noiz eman duen! Muga dortsalak banatzen diren eguna da, ekitaldiaren aurreko astean.

0 Etapa amaitu badut, jarrai dezaket borroka minutuak sortzen?

Jakina! Estropatada tiketak saltzen jarrai dezakezu, edo diru-ekarpen gehiago egin.

Borrokarako minutuak sortzeko beste modu batzuk:



Erosketak sortzea gure online dendan, tiketak izan ala ez



WOP-en lagunak erakartzea (AmiWOP)



WOP-en enpresa lagunak erakartzea (AmiWOP enpresak)



BORROKA-MINUTU GEHIEN SORTU DITUEN TALDEA AINTZATESTEA

Urriaren 5an, igandea, gaixotasun neurodegeneratiboen aurka minutu gehien sortu dituen taldeak errekonozimendu publikoa jasoko du, gainera datorren ediziorako doako izen-ematea* eta opari sorpresa bat taldearentzat jasoko du.


* Doako izen-emateak izen-ematearen prezioa estaltzen du, baina ez bestelako gastuak, talde-asegurua edo 0 Etapa adibidez.

ZER DA ESTROPATADA?

WOPato lasterketa Bilboko itsasadarrean eta familia festa handi bat.


2021az geroztik, lasterketa munduko lehen bio-ahatekin egiten da, landare-jatorriko materialarekin egindakoak.

Ekitaldiak bat egiten du WOP Challenge-eko taldeen helmugaratzearekin, urriaren 5an, igandean, ospatuko da baita.



Ekitaldi paregabea Bilbon

- Bioahate geolokalizatuen lasterketa ikusgarria
- Enpresen eta taldeen WOPatoi lasterketa



Familia festa handia

- Haurrentzako gune harrigarria, jolasekin eta jarduera ezberdinekin
- Musika zuzenean
- Gastronomía eta txosna

ESTROPATADA-REN INFORMAZIO GEHIAGO >

Nola parte hartu?

Lasterketa original honetan parte hartu nahi dutenek 5 euro balio duen tiketa erosi behar dute.

Tiketarekin, erosten duen pertsonak honako hau lortzen du:

- Zientzia minutuak batzea.
- WOPatoi lasterketan parte hartzea. Ahateak guk askatzen ditugu. Munduko edozein lekutatik parte har dezakezu, izan ere, Streaming bidez ekitaldia ikus dezakezu!
- Irabazleek sari handiak dituzte!
- Gainera, parte-hartzaile guztiek saria dute, izan ere, lasterketaren ondoren, tiketak sorpresa batekin edo WOP produktuetan deskontuekin truka daitezke.

ZER DA WOPATOI BAT?

Zure taldeak 1.800 borroka minutu baino gehiago sortzea lortzen badu, WOPaton lehiaketan parte hartuko duzue! Estropatadan ospatzen den enpresa, erakunde, talde eta abarren arteko lehiaketa dibertigarria.



WOPatoi bat bidaliko dizugu

- WOPatoi bat (XXL ahatea) bidaliko dizugu, zuen irudi korporatiboarekin edo nahi duzuen bezala apertsonalizatu ahal izango duzuen.



Botazio publikoa eta erakusketa

- Herritarrek Wopatoi gogokoaren alde bozkatu ahal izango dute ekitaldiaren webgunetik. Hiru faboritoek aitoren bat jasoko dute Estropatadaren sari-banaketan
- Wopatoiak erakusketa publiko batean bisitatu ahal izango dira, Bilbon. Eta Estropatadan!

WOPATOI INFORMAZIO GEHIAGO >

Zalantzak dituzu?
Jarri harremanetan gure taldearekin



638 560 659



reto@wopmail.org